

# HIZKUNTZA-EKOLOGIA ETA JASANGARRITASUNA, GLOBALIZAZIOAN: EUSKARARI BEGIRA

**Maria-Jose Azurmendi**

*UPV/EHUko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia  
Saileko katedraduna*

Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net

Soziolinguistika Klusterrak "Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria" izeneko bi saio antolatu zituen Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuaren (Gasteizen, 2009ko azaroaren 18-20) GLOBALIZAZIOA izeneko atalean. Lehen saioak, "Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria, Globalizazioan" izenburua jaso zuen, eta, bertan, Iñaki Martinez de Luna irakasleak "Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak" komunikazioa aurkeztu zuen. Saio berean, Itziar Idiazabal irakasleak *Hizkuntza aniztasuna ondare gisa UNESCOren ekimenetan, Euskal Herriatik begiratu bat* lana eskaini zuen.

Artikulu honetan, bi komunikazio horien inguruan mintzatuko gara, ideia nagusiak jasoz eta irakurleari hainbat gogoeta eskainiz.

## 1. HIZKUNTZEN EKOLOGIAREN DISKURTSOA ETA EUSKARA: EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNeko AUKERAK

Iñaki Martinez de Luna irakasleak bere komunikazioaren sarreran, honako galdera hauek proposatzen ditu:

- Gaurko hizkuntza-balioekin alderatuz, zer dakar ikuspegi ekologikoak?

- Zer dakar hizkuntza gutxiagotuentzat? Gaintitze bat? Osatze bat? Euskarri berri bat?

Galdera horiei erantzunez, lau ataletan garatu du egileak gogoeta. Artikulu honetan, atal horiei jarraipena eginez ekarriko dugu gogoeta hori. Helburua da hizkuntza-ekologiak euskarari zer-nolako ekarpena egiten dion modu kritikoan ikustea. Beti ere, jakintza soziologikoa eta soziolinguistikoa abiapuntutzat hartuta, eta maila teorikoan eta enpirikoan gizarte zientziek diotena kontuan izanda.

### 1.1 Hizkuntza-ukipen egoeraren ereduak

- *Hizkuntza-ekologia: eredu berritzailea da*

Hizkuntza-ekologiak hizkuntzen arteko harremanak modu berrian ulertzen ditu. Harreman horiek, ezinbestean, gatazkatsuak eta baztertzailak izan behar dutelako ideia gaintuz, honako ideiak azpimarratzen ditu: "Hizkuntza gutxituaren sustapena ez litzateke beste hizkuntz(ar)en kaltetan egin behar Hizkuntzen arteko bizikidetzan, hizkuntzen arteko elkarbizitza litzateke helburua" (Coyos 2009); Mundu osoan zabalduko estatu-nazioaren hizkuntza bakarrek eredu gaintu nahi du hizkuntza-ekologiak; "... hizkuntza-desberdintasunaren mantentzeaz arduratzen da, hizkuntza guztiek, "txiki"ek barne, gizadi osoari aberastasuna ematen diotela argudiatuz" (Coyos 2009). Planteamendu etiko berri horrekin ikuspuntu zientifiko berria eraikitzen saiatzen da hizkuntza-ekologia.

Zentzu horretan, Yukio Tsuda adituak (Phillipson 2009) "ingelesaren zabalkundea edo hizkuntzen ekologia" izeneko eskema garatu du. Eskema horrek hizkuntzen arteko joera kontrajarriak laburtzen ditu, gaur egungo hizkuntza-politikako bi paradigmen ezaugarri nagusiak azaltzeko:

#### 1. Paradigma: Ingelesaren zabalkundearen ezaugarriak:

- Kapitalismoa
- Zientzia eta teknologia
- Modernizazioa
- Elebakartasuna
- Globalizazio eta nazioartekotasun ideologikoa
- Transnazionalismoa
- Munduko kulturaren estatubatuartzea eta homogeneizatzea.

#### 2. Paradigma: hizkuntzen ekologiaren ezaugarriak:

- Giza eskubideak errespetatzen dituen ikuspegia
- Berdintasuna komunikazioetan
- Eleaniztasuna
- Hizkuntzak eta kulturak mantentzea

---

*Hizkuntza-ekologiak hizkuntzen arteko harremanak modu berrian ulertzen ditu. Harreman horiek, ezinbestean, gatazkatsuak eta baztertzailak izan behar dutelako ideia gaintuz, honako ideiak azpimarratzen ditu: "Hizkuntza gutxituaren sustapena ez litzateke beste hizkuntz(ar)en kaltetan egin behar Hizkuntzen arteko bizikidetzan, hizkuntzen arteko elkarbizitza litzateke helburua".*

---

**Gaur egun “Ingelesaren zabalkundearen paradigmatik” estatu-nazioen hizkuntza bakarraren ereduari jarraitzen dio.**

- Subiranotasun nazionalari babes
- Atzerriko hizkuntzak ikasteko sustapena

Bigarren paradigma hori da hizkuntza-ekologiak indartu nahi duena: hizkuntza guztiek beren leku zehatza izan behar dute, oreka zail eta hauskor baten baitan izango bada ere.

• *Estatu-nazioen hizkuntza bakarraren eredu*

Historian zehar ohikoak izan dira hizkuntzen arteko harreman gatazkatsuak, eta gatazka horiek eragin izan dute hizkuntza batzuen ahulezia eta horietako askoren heriotza ere. Gaur egun “Ingelesaren zabalkundearen paradigmatik” estatu-nazioen hizkuntza bakarraren ereduari jarraitzen dio.

Paradigma hori ulertzeko “hizkuntza-darwinismoa”ren kontzeptua erabili ohi da: Kontzeptu horrek hizkuntzek ere Darwinen eboluzio-teoriaren bilakaera bera dutela pentsatzen duen hizkuntza-ideologia islatzen du. Horren arabera, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailentzen dira ahulenak baztertuz, izan ere, hizkuntza egokienak bakarrik aurrera egin dezakete. Kontua da, baina, ideologia horrek dimentsio politikoa eta ekonomikoa bakarrik erabiliz aztertzen duela gaia, bestelako dimentsioak (sozialak, kulturalak, ...) kontuan hartu gabe. Eta, horrela, hizkuntzen barne-ezaugarriak (corpusa) eta kanpo-ezaugarriak (estatusa) nahasten dira, inposizio eta inperialismoaren emaitzak justifikatuz eta naturalizatuz, Moreno Cabrera autoreak (2008) adierazten duen bezala. Autore horrek hizkuntza egokiak aukeratzeko orduan nazionalismo linguistikoaren ideologiaren papera azaltzen du modu honetan:

1. Hizkuntza edo hizkuntza-aldaera bat nazio-hizkuntzat hartzen denean, hizkuntza hori tokian-tokikoa -edo lokala- izatetik maila goreneko hizkuntza izatera igarotzen da. Kasu horietan, nazio-hizkuntza bakarra neutralizat balitz moduan agertzen da, eta, ondorioz, elebakartasuna bultzatzen da.
2. Gainerako hizkuntzak edo hizkuntza-aldaerak bigarren mailakotzat hartzen dira, eta, beraz, faktore horrek ere, elebakartasuna bultzatzen du.

Nazionalismo linguistikoaren ideologiari jarraiki, Estatu-nazioek talde etniko, linguistiko eta kultural bakarra aukeratzeko erdigune izateko, gainerakoak gutxiagotuz. Baina, aukeratutako bakar hori denen onurarako balitz bezala azaleratzen dute, modu horretako gizarteari eleantza eta kulturantzuna deituz.

Hizkuntza-darwinismoaren arabera, hizkuntza organismo aske edo independentetzat har daiteke; bere hiztunengandik eta hizkuntza-komunitatearengandik aska daiteke, eta aukeratutako hizkuntza bakar horren

nagusitasuna eta ospea (estatusa) berezkoa eta naturala (corpusa egokia) balitz bezala kontsidera daiteke. Horrela, hizkuntza estandar bakarren derrigortzea prozesu naturala balitz moduan azaltzen da. Gainera, hiztunek hizkuntza bakar hori erosoena eta ulergarriagoena izango balitz bezala onartzen dute. Esan daiteke, beraz, “naturala” adjektiboak bi ezaugarri behintzat ezkututzen dituela: 1) botere politikoaren eta militarren bitartez lortu den hizkuntza bakarra izatea, eta 2) aplikatzen diren hizkuntza-politikak eta plangintzak hizkuntza hori hizkuntza bakarra izateko helburuarekin diseinatzen direla, Estatuaren sinbolo nagusi gisa. Horrela, “dominazioaren sekretua dago, bestearen imaginarioa kolonizatzea, norberaren mundua inposatuz posible den bakarra balitz bezala” (Lizcano 2006, in Moreno Cabrera 2008).

---

***Nazionalismo  
linguistikoaren  
ideologiari jarraiki,  
Estatu-nazioek talde  
etniko, linguistiko eta  
kultural bakarra  
aukeratzen dute erdigune  
izateko, gainerakoak  
gutxiagotuz.***

• *Indarrean dagoen hizkuntza-eredua*

Espainiako eta Frantziako Estatu-nazioen hizkuntza-eredua hizkuntza bakarraren eredua da. Boteretsuenek (botere politiko, juridiko eta ekonomikoa lortzen dutenek) ezarri eta inposatutako hizkuntzarena. Adibidez, gaztelania edo espainieraren hizkuntza bakarraren eredua XIII mendean abian jarri zen, eta, harrez gero, etengabe garatu da gaur egun arte. Hona hemen, hainbat adibide prozesua argitzeko lagungarri

1. *Noticias de Gipuzkoa*, 02/09/2009: “Bono ‘entierra’ la posibilidad de hablar euskara en el Congreso de los Diputados. Alega que la medida ‘tiene difícil encaje jurídico’... Su antecesor en el cargo, el también socialista Manuel Marín, protagonizó en 2005 un acto de gran trascendencia al permitir por primera vez que la representación vasca, catalana y gallega pudieran dirigirse a la Cámara en sus respectivas lenguas, de forma transitoria hasta la redacción de un nuevo reglamento que contemplase este derecho. Sin embargo, tras sólo dos sesiones plenarias, sólo se ha podido hablar castellano en la Tribuna. La presión partidista y mediática española llevó a Marín a retractarse y reconocer que ‘la Presidencia del Congreso se había equivocado’”.

2. *Euskara, mandiorako erabili.com /Bestelakoak /2009/05/18*: “Jaime Mayor Oreja, Espainiako Alderdi Popularrak (PP) Europako Parlamenturako aurkeztu duen hautagaiak, goraiatu zuen ‘nire birraitona ahalegingu zen seme-alabak ez zitezen itxi mandioan. Etxean euskaraz egitea debekatu zuen, espainiera ondo ikas zezaten”. Adibide horrekin, Kataluniako hezkuntza sisteman dagoen hizkuntza-politika kritikatu zuen, besteak beste, ‘miseria morala eta ekonomikoa besterik ekar zezakean’ hizkuntza ereduaren kontra egiteko. Berdin Europar ere, Espainiar guztien helburu ingelesaren ondotik, komuna izateko espainiera Europako erakundeetan bigarren hizkuntza

**Espainiako eta  
Frantziako Estatu-  
nazioen hizkuntza-eredua  
hizkuntza bakarraren  
eredua da. Boteretsuenek  
(botere politiko, juridiko  
eta ekonomikoa lortzen  
dutenek) ezarri eta  
inposatutako  
hizkuntzarena.**

nagusia izatea dute helburu, Estatuko beste hizkuntza gutxiagoak Europako Batasuneko erakundeetan ez erabiliz.

3. [www.elcorreodigital.com/vizcaya/20091027...](http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/20091027...): J.M. Vitoria: "La Cámara vasca pide valorar menos el euskara en la Sanidad. PSE, PP y UPyD aprueban una moción que insta al Gobierno vasco a buscar 'el equilibrio' con otros méritos... Iniciativa aprobada en la Cámara... El PP aseguró ayer, tras el acuerdo alcanzado con PSE y UPyD, que 'nos acercamos al fin de la política de discriminación lingüística en las ofertas públicas de Osakidetza... que considera 'clave' acabar con la 'sobrealoración' del euskara..."; zenbait kontzeptu, diskriminazio-eza, adibidez, Estatu-nazioko hizkuntza bakarra den espainierarekiko soilik aplikatuz. Frantziar Estatuan ere, antzerako jokamoldeak antzematen dira.

Hori guztia, ordea, hizkuntza-ekologia ereduaren kontra dago, bi arrazoiengatik, besteak beste: 1) hizkuntza guztien balioen mantentzea ezinezkoa egiten duelako, eta 2) hizkuntzen arteko gatazka-paradigma inplikatzeko duelako.

## **1.2 Hizkuntza-balioak eta hizkuntza-irudikapenak euskal gizartean**

Zeintzuk dira gaur egun gizartean dauden hizkuntzekiko irudikapenak? Galdera horri erantzuteko, zenbait gogoeta eskaintzen dira aztertzen ari garen komunikazioan.

- *Euskara ikasteko edo ez ikazteko arrazoiak*

E. Baxok et al. (2006) 16 urtetik goragokoen artean egindako ikerketaren datuek honakoa erakusten dute:

1. "Euskara ikasten ari direla, ikasten lehenago arituak direla, edo baldintza egokiak izanez gero, ikasi nahiko luketela" diotenak erabiltzen dituzten arrazoi nagusiak honakoak dira: euskal identitatea, motibazio integratzailea, eta 'herri honetako hizkuntza delako' adierazten dutenak %45; 'euskaldunekin komunikatu ahal izateko', %34; eta 'euskal herritar naizelako' %19 (portzentajeen batuketan 100 ez bada ere, baliagarriak dira konparatiboki erabili ahal izateko).

2. "Euskara ikasten ez direla ari eta horretarako asmorik ez dutela" dioten arrazoi nagusiak bi motatakoak dira. Alde batetik motibazio pragmatikoa edo instrumentalarekin lotzen direnak: 'ez dut behar, denek dakite erdara', %31; 'nahiago dut denbora beste zerbaitetan erabili', %28; 'dakidanarekin moldatzen naiz', %16; 'ez dut behar lanerako/lana aurkitzeko', %11. Bestalde, baldintza edo muga

pertsonalarekin lotzen direna arrazoiaren artean honakoak: 'zaharregia naizelako', %19; 'zaila delako', %9.

Horrela, esan daiteke aipatu diren arrazoiak ez dutela bat egiten hizkuntza-ekologia ereduarekin, nahiz eta jakin, euskararentzat eta antzeko hizkuntza gutxiagotuentzat hori izan daitekeela eredu baliagarriagoa. Zergatik baina?

- *Euskararen inguruko irudikapenak*

J.M. Hernandezek (2000) 12 urteko nerabeen artean egindako ikerketan, bi gai hauekin lortutako erantzunak eta diskurtsoak aztertu zituen: 1) "ea hizkuntza guztiak berdinak ote diren", eta 2) "ezezko erantzunetan, zeren arabera sailkatuko lituzketen hizkuntza horiek". Emaizten artean, honakoak azpimarra daitezke:

1. "Lehenengo diskurtsoak hitz egiten diren lurraldeen arabera sailkatu ditu hizkuntzak ... Izan ere, herrialdeak edo lurraldetasunak hizkuntza bera eta bere oinarriak definitzen ditu, neurri handi batean. Alde horretatik, hizkuntzak handiak edo txikiak, boteretsuak edo ahulak izaten dira, baldin eta dagozkien lurraldeek ezaugarri horiek baldin badituzte".

2. Herri bakoitzak bere hizkuntza duen heinean, hizkuntza ezberdinen elkarbizitza zailtzat jotzen da, eta hizkuntza aniztasunaren aukera ukatzen da. Diskurtso horrek hizkuntzen arteko borroka azpimarratzen du, ikuspuntu baztertzailera aplikatuz. Irizpide nagusia da, hizkuntzen balioa hizkuntza horiek duten indarrean edo erabilgarritasunean kokatzea... Ezberdintasun botere ezberdintasunak dira, eta, askotan, aniztasunak ekar dezakeen aberastasuna deuseztatu egiten da".

3. "...Hizkuntza handien hedapenaren garaian bizi dira gazte horiek eta gaztelania, frantsesa, ingelesa eta alemana eskura dituzte. Hizkuntza horiek boteretsuak, hiritarrak, konplexuak, irekiak, zabalak, eta aukera ugariak izango lirateke. Gauzak horrela, euskarak suposatzen duen ñabardura ez da kasu gehienetan erakargarria, gazte unibertsoan hizkuntza txikitatzen, sinpletzat, mugatutzat eta gatazkatsutzat hartzen baita".

Hau da, irudikapen horiek Estatu-nazio ereduaren sartzen dira. Bestela esanda, hizkuntza-ekologiaren planteamenduaren beste muturrekoak dira.

### 1.3 Balio, iritzi eta jarreraren egoera EAEn

E. Amorrortu eta besteek (2009) EAEn eginiko ikerketan, euskaraz ez dakitenean artean (populazioaren herena, gutxi gora-behera), euskarareki-

---

*Euskara ikasteko edo ez ikasteko arrazoiak.*

*Aipatu diren arrazoiak ez dutela bat egiten hizkuntza-ekologia ereduarekin.*

---

**12 urteko nerabeen artean egindako ikerketan.**

**Estatu-nazio ereduan sartzen dira. Bestela esanda, hizkuntza-ekologiaren planteamenduaren beste muturrekoak dira.**

**Esan daiteke euskararen aldeko iritziek atxikimendu ahulekoak eta iritzi abstraktuak direla.**

ko duten aurreiritziak eta jarrerak aztertu zituzten. Honako ondorioak lortu zituzten, besteren artean:

• *Nahiko aldekoak, orokorrean:*

1. "Gehienak prest daude beren seme-alabek euskara ikasi dezaten ahalegintzeko".
2. "%69,4k arazotzat hartuko luke euskara desagertzea".
3. "%58,2ri ez zaio axola bere aurrean euskaraz hitz egitea, nahiz eta berak ulertu ez".
4. "Administrazio publikoak euskararen alde egiten dituen ekimenei buruz, adostasuna jaso dute zenbait neurri dagokionez: "ezin da euskara galtzen utzi, ados nago euskara bultzatzearekin, euskara errespetatu behar da, ...".

• *Ez nahiko aldekoak, neurri zehatz batzuetan:*

%30ak ez du ondo ikusten:

1. "Arriskuan dagoen hizkuntza batek bizirik jarraitzea lortu nahi bada, horren aldeko neurriak hartu behar dira, nahiz eta guztien gustukoak ez izan".
2. "Ezinbestekoa da euskara sustatzeko diru publikoa gastatzea".
3. "Euskararen alde hizkuntza-politikan izaten ari den kostuak arrazoizkoak dira".

• *Kritikatzen dira:*

%75 ados dago horrelako iritziekin:

1. "Euskara azkarregi berreskuratu nahi izan da".
2. "Oposizioak egiteko euskara jakin behar dela eskatzea onartezina da, diskriminatzailea baita".
3. "Ez litzateke euskararen erabilera Euskadiko biztanleria guztia-rengana zabaltzen ahalegindu behar".

• *Kontrako iritziak ere bai:*

"Ezinbestekoa da jendaurrean lan egiten duten funtzionarioek euskaraz hitz egin dezaten eskatzea", onartua ez delako.

Horrela, esan daiteke euskararen aldeko iritziek atxikimendu ahulekoak eta iritzi abstraktuak direla. Aldiz, lotura eta konpromisoa inplikatzeko duten iritziekiko kontrako iritzi eta jarrerak gehiago dira, aldekoak baino. Eta, beraz, esan daiteke oso kezagarria dela, gizarte sektore hori euskararen berreskurapenerako hartu behar diren neurri berezien alde ez egotea, kontuan izanda euskara hizkuntza-ukipen egoeran gutxitua izan dela.

## 1.4 Hizkuntzen ekologiaren benchmarking-a hizkuntzen merkatuan

Orain egin beharreko galdera honakoa litzateke: “zein da ikuspuntu ekologikoaren *benchmarking*-a edo hizkuntzen merkatuko kokapena hizkuntzen inguruko diskurtsotan? Eta hizkuntzak produktu gisa hartuta?”

- *Hizkuntza-diskurtsoak*

1. Ikuspuntu ekologikoak ez du pisurik euskara ikasteari ekiteko; horretarako, planteamendu identitatezkoak eta motibazio pragmatikoak nagusi dira gure artean.
2. Sozializazioaren bitartez, gazteek ere barneratu eta errepikatzen dute aurreko egoera bera.
3. Estatu-nazioaren hizkuntza bakarraren hiztunek (erdaldun elebarrak) ez dituzte bere egiten hizkuntza gutxiagotutako euskarak dituen premiak. Agian, euskarak aurrera eginez gero, egunerokoan dituzten hainbat onura galduko dituzten beldur direlako.
4. Euskararen aldeko arrazoi identitatezkoak, EAEn batez ere, euskal nazionalismoaren eskutik bultzatu izan dira, estatu-nazioaren eskema bera euskarari ekarriz: euskara da euskal nazioaren hizkuntza bakarra eta, horren ondorioz, euskal nazioaren kide sentitzen ez diren euskal herritarrek euskararen defentsatik kanpo ikusten dute beren burua (Iparraldean bestela gertatzen bada ere, dirudienez).

- *Hizkuntza-azoka, edo hizkuntzak produktu gisa*

Hizkuntzek gaur egungo gizartean nolako lekua duten ulertzeko, kome-nigarria da “egungo gizarte” horren (mendebaldeko gizarte garatuetan behintzat) ezaugarri garrantzitsu batzuk lerrotzea:

Gizarte hau “kontsumitzailea” da beste edozein ezaugarriren aurretik, eta kontsumo-jarduera hori gizarte esparru guztietara zabaltzen da (Campbell 2004, in Bauman 2007). Hizkuntzak ere munduko azoka globaleko eskaintzaren parte dira. Horrela, hiztun elebidun edo eleaniztunek hizkuntzen merkatuan bilatzen dituzten kontsumo-eskaintzak hizkuntza jakin batzuen eskutik jasotzen dituzte, edozein hizkuntzatan ematen den eskaintza hoberena edo egokiena bilatuz, zein hizkuntzatan den erreparatu gabe. Horrela, hizkuntzen azoka horretan, euskara galtzaile izateko arriskua handia da, bere bitartez egiten den eskaintza zabaltzen eta hobetzen ez den bitartean behintzat.

## 1.5 Ondorioak

AMIA azterketa eredua jarraiki, ondoren, hizkuntza-ekologia eredua aztertuko da, indarguneak eta ahuleziak, aukerak eta mehatxuak bereiziz.

---

*Euskararen aldeko arrazoi identitatezkoak, EAEn batez ere, euskal nazionalismoaren eskutik bultzatu izan dira, estatu-nazioaren eskema bera euskarari ekarriz.*



---

**Hizkuntzen azoka horretan, euskara galtzaile izateko arriskua handia da, bere bitartez egiten den eskaintza zabaltzen eta hobetzen ez den bitartean behintzat.**

• *Ahuleziak eta mehatxuak*

1. “Ohiko sozializazio-moduak” mantentzen dira gaur egungo gazteen- gan ere. Gizartearen balioak belaunez belau mantentzen dira, nahiz eta ez den modu mekaniko edo determinista bat jarraitzen. Aldiz, talde edo pertsona bakoitzak aukeratzen du bere berezitasunak nola azpimarratu. Hori bera gertatzen da hizkuntzen alorrean ere. Horrela, estatu-nazioaren balioak belaunaldi berrietan birsortzen dira, hizkuntza-ekologia eredua zabaltzea oztopatuz.
2. “Merkatu-balioari” dagokionez, euskara ez da produktuen edo zerbitzuen aukera hoberena eskaintzen duen hizkuntza, eta, horrela, merkatu-balio gutxikoa da euskara, gaur egun behintzat. Zer eta nola egin euskararen aldeko joera erakargarria izateko?
3. “Gizarte axolagabekeria” ere badago euskararekiko, euskal gizartearen lehentasunetan ez delako euskara sartzen; euskararen aldeko- tasuna pasiboa delako gehiago, konprometitua baino.

• *Indarguneak eta aukerak*

1. “Sozializazio mota berri” bultza daiteke. Bauman adituak (2007) esaten duena jarraituz: “giza portaerako eremuak geroz eta handiagoak direnez, antolamendu, gainbegiratze eta zaintza sozialetik libratu dira, baita edozein autoritatek ofizialki egin dezakeen onartzetik edo zigortzetik ere. Horrela, lehen sozializatzen ziren zenbait ardura, orain norbanakoarengan jartzen dira... Neurri handi batean, estimu- lazioak hertsadura ordezkatzeko, erakargarritasunak betebeharra ordezkatzeko, sare sozialak eta publizitateak zaintza ordezkatzeko, eta nahi edo behar berriek erregulazio normatiboa ordezkatzeko”. Hori bera gertatzen da hizkuntza-sozializazioarekin ere, pertso- naren erabakiak gero eta libreagoak eginez, eta euskararen alde egi- tea aukerakoagoa eginez. Sozializazioa, horrela, ez da horren ‘pri- mordialista’ jada, baizik nahiko ‘konstruktibista’.
2. “Naturaren eredua” edo ekologia-eredua erabiliz hizkuntzen arlo- an, kontzeptualizazio berriak aplikatu daitezke, hizkuntza eta kultura aniztasunaren alde eginez, eta homogeneizatze joera alboratzeko.
3. “Ideologiarik eza”: hizkuntza ideologiatik aldentuz gero, eta hiz- kuntza-ekologia eredua erabiliz, gaintu daiteke euskal *versus* espainiar identitate dikotomikoa, euskararen alde egitea denontzat irekiagoa eta errazagoa egiteko.
4. “Globalizazioak” ekar dezake homogeneizazioa, baina, alderan- tziz ere, indartu dezake aniztasuna. Globalizazioa hizkuntza-ekolo- gia ereduekin lotzen bada, euskaltzaleek pentsa dezakete ez dau- dela bakarrik euren hizkuntza gutxiagotuaren defentsan, baizik eta, munduan hedatzen ari den edozein hizkuntzaren aldeko aldarrika-

penaren joerari jarraiki, *provincianismotik* atereaz, nazioarteko globalizazioaren baitan daudela.

5. “Elkarbizitza” baketsua bultzatu daiteke hizkuntza-ekologiatik. Izan ere, bere helburua giza eskubideak gordetzea, berdintasuna bilatzea eta eleaniztasuna bultzatzea da, beti ere, elkarbizitzarako beharrezkoak diren balioak indartuz.

## 2. HIZKUNTZA ANIZTASUNA ONDARE GISA UNESCOREN EKIMENETAN. EUSKAL HERRITIK BEGIRATU BAT

Izenburu horrekin Itziar Idiazabal irakasleak bere komunikazioa aurkeztu zuen Kongresuan. Komunikazioaren sarreran adierazten den laburpen gisakoan honako bi atal bereizten dira:

- UNESCOk hizkuntza-aniztasuna zaindu eta garatzeko hartu dituen erabakiak eta bultzatu dituen ekimenak nolakoak diren jaso duena, eta
- Euskal Herriko eleaniztasunari begiratzuz, etorkinek ekarri dituzten hizkuntzei buruzko gogoeta eskaintzen duena.

“1945an sortu zenetik, UNESCOren helburuak munduan zehar kultura-, hezkuntza- eta zientzia-eskubideak eta ondarea zaintzea eta garatzea izanik, erraz ulertzen da hizkuntzaren, hobeto esanda, hizkuntzen ardura bere gain hartzea”, batez ere XXI. mendez geroztik. Horren adibide dira honako ekimenak: 1) 2001ean Würm adituak argitaratutako *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*, 2009an berriro argitaratua; 2) 2008. urtea mundu mailako hizkuntzen urtearen izendapena; 3) Hizkuntza-aniztasunaren alde eta arriskupean dauden hizkuntzen bizi-raupenaren alde hartutako erabaki eta bideratutako ekimenak; 4) Euskal Herriko UNESCO Etxeak, IKUSPEGIK eta UPV/EHUko Munduko Hizkuntza-Ondarearen UNESCO Katedrak burutu dituzten zenbait ikerketa eta argitarapen. Horien artean etorkinen hizkuntzen inguruan egindakoak azpimarra daitezke. Gai horiek hartuta prestatu da komunikazioa, irakaskuntza eleaniztari ekartzen dizkioten erronken inguruan egindako hainbat gogoetarekin amaitzeko.

### 2.1 UNESCOren ekimenak munduko hizkuntza ondarearen alde

UNESCOk ez ditu betidanik hizkuntza guztiak ukiezinezko ondare bezala onartu. Esate baterako, erakundeak zein hizkuntzatan mintzatu behar zuen erabakitzerakoan, ez du beti irizpide bera erabili. Horren lekuko interesgarria da *UNESCOren Korreoa* aldizkariaren bilakaera ikustea. 1947an sortu zen aldizkaria, eta 50 urte baino gehiagotan hizkuntza ezberdin asko erabiltzen zituen aldizkari bezala ezaguna zen. Garai bate-

---

*Hizkuntza ideologiatik  
aldenduz gero, eta  
hizkuntza-ekologia  
eredua erabiliz, gainditu  
daiteke euskal versus  
espainiar identitate  
dikotomikoa, euskararen  
alde egitea denontzat  
irekiagoa eta errazagoa  
egiteko.*

**Globalizazioa hizkuntza-  
ekologia ereduarekin  
lotzen bada,  
euskaltzaleek pentsa  
dezakete ez daudela  
bakarrrik euren hizkuntza  
gutxiagotuaren defentsan,  
baizik eta, munduan  
hedatzen ari den edozein  
hizkuntzaren aldeko  
aldarrikapenaren joerari  
jarraiki,  
provincianismotik  
atereaz, nazioarteko  
globalizazioaren baitan  
daudela.**

ko paperezko formatuan, 32 hizkuntzatan argitaratzen zen, tartean euskaraz ere bai. Gaur egun, interneten argitaratzen da, eta sei hizkuntza ofizial hauetan bakarrik kaleratzen da, azken Zuzendari Orokorrak (Koichiro Machuura) egin dituen aldaketen lekuko: frantsesez, ingelesez, espainieraz, errusieraz, arabieraz eta txineraz,

Koichiro Machuura Zuzendari Orokorren garaian izan ziren hizkuntza-aniztasunaren kontrako beste hainbat aldaketa ere. Adibidez, UNESCO Etxearen ekimenez, Eusko Jaurlaritzza eta Pariseko UNESCO erakunde nagusiaren artean Lankidetzarako Memoranduma sinatu zen (1997/06/23), *Munduko Hizkuntzen Txostena* egiteko, eta UNESCOk berak argitaratuko zuela adostu zen. Baina, gero Txostenean agertzen ziren hainbat azterketa kentzea erabaki zuen UNESCOk, estatu batzuek horrela agindutakoari amore emanaz; tartean ziren Frantzia, Txina eta beste batzuk. Ondorioz, UNESCO Etxeak beste bide bat erabili zuen argitalpen egiteko (Martí et al. 2005).

Nolanahi ere, eta bereziki 2000 urtetik hona, UNESCOk aldarrikapen asko egin ditu hizkuntza-ondarea zaindu beharraren alde. Adibidez, Koichiro Matsuura Zuzendari Orokorrak 2008ko UNESCOren Batzar Nagusiaren irekitze-ekitaldian honakoa esan zuen: “La desaparición de una lengua conduce a la desaparición de varias formas de patrimonio cultural inmaterial y, en particular, del legado invaluable de las tradiciones y expresiones orales de la comunidad que la habla ...”.

Ondoren, horietako ekimenen batzuen aipamena:

- *Ama-Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna (1999)*

1999ko UNESCOren Batzar Orokorrak “otsailaren 21a” izendatu zuen *Ama-hizkuntzaren Nazioarteko Eguna*, 2000 urtetik aurrera ospatzen jarraitzen dena.

- *Kultura-Aniztasunaren Adierazpen Unibertsala (2001)*

Hizkuntza-aniztasunaren ardurak XXI. mendean UNESCOk Kultura-Aniztasunaren Adierazpen Unibertsalarekin abiatzen du. Aldarrikapen-testu horrek ezartzen ditu ekintza-plan baterako “oinarri lerroak” deitutako lehentasunak. Lehentasun horien artean daude hizkuntzei dagozkienak, adibidez:

1. “Gizateriaren hizkuntza-ondarea zaintzea eta ahalik eta hizkuntza gehienetan adierazpena, sormena eta zabalkundea bultzatzea”;
2. “Hizkuntza-aniztasuna sustatzea hezkuntza maila guztietan, ama-hizkuntza errespetatuz ahal den guztietan, eta eleaniztasunaren ikas/irakaskuntza adinik goiztiarrean bultzatzea”.

*Ukitu ezineko Ondare Kulturala zaintzeko Hitzarmena (2003)*

Bereziki ahozko tradizioaren adierazpenak, eta hizkuntza bera dira zaindu beharrekoak, ukitu ezineko ondare kulturalaren bitartekoa hizkuntza bera delako.

- *Ziberespazioko Sarreretan Eleaniztasunaren Erabilera eta Sustapenari dagokion Gomendioa (2003)*

Bereziki garrantzitsua da *Gomendio* hau, izan ere, munduko informazio-sareetako ezagutzak eskuragarri izan daitezen ezinbestekoa da hizkuntza-aniztasuna ziberespazioan hedatzea; teknologiak gero eta aukera gehiago eskaintzen ditu horretarako, eta ahalegin berezia egin behar litzateke alor horretan.

- *Kultura-Adierazpen Aniztasunaren Zaintza eta Sustapenerako Hitzarmena (2005)*

Bertan ez da hizkuntzari buruzko aipamenik egiten, harrigarria badirudi ere.

- *Herri Indigenen Eskubideen Nazio Batuen Adierazpena (2007)*

Aldarrikapen hori, ohiko sei hizkuntza ofizialez gain, beste 22 hizkuntzatan ere argitaratu zen (baita maia eta nahuatl hizkuntzetan ere). Aipagarria da aldarrikapenak Estatu Batuen, Kanadaren, Australiaren eta Zeelanda Berriaren ezezko botoak jaso zituela, eta beste hamaika estatu absenteitu egin zirela (Kolonbia, Errusiar Federazioa, ...). Adierazpenak bilzen dituen artikuluen artean interesgarriak dira honakoak:

1. Hamahirugarren artikuluan: 1) herri indigenek eskubidea dute beren kondairak, hizkuntzak, ahozko tradizioak, filosofiak, idatz-sistemak eta literaturak indarberitzeko, erabiltzeko, sustatzeko eta belaunaldi berriei transmititzeko; baita euren erkideko, leku eta kideei euren izenak eman eta mantentzeko ere; 2) Estatuak eskubide hori zaintzen dela ziurtatuko dute, eta, hartarako, neurri egokiak hartuko dituzte; era berean estatuak herri indigenek ulertzen dutela eta bere burua ulertarazten dutela ziurtatuko dute ekintza politikotan, justiziako eta administratiboetan. Horretarako, behar denean, itzulpen- eta interpretazio-bitarteko egokiak izango dituzte.
2. Hamalaugarrean: 1) Herri indigenek eskubidea dute beren heziketa-sistema izateko, horretarako beharrezko erakundeak ezarri eta kontrolatzeko, bere hizkuntzetan irakasteko, eta helburu horrekin sortu dituen metodoak erabiltzeko; 2) bereziki haurrek eskubidea

---

**Bereziki 2000 urtetik hona, UNESCOk aldarrikapen asko egin ditu hizkuntza-ondarea zaindu beharraren alde.**

---

*Garai batean, elebitasuna  
arazotzat hartzen zen, eta  
gaur, berriz, eleaniztasuna  
gauzarik arruntena eta  
desiragarriena bezala  
agertzen zaigu.*

dute estatuaren heziketa-maila eta forma guztiak inolako diskriminaziorik gabe erabili ahal izateko. 3) Estatuak herri indigenekin batera neurri aproposak hartuko dituzte, pertsona indigenek, eta bereziki haurrek, euren erkidegotik kanpo bizi direnak barne, aukera izan dezaten, ahal den heinean behintzat, hezkuntza bere kultura eta hizkuntzan jasotzeko.

Horrela, gaur egun, UNESCOk hizkuntza-aniztasuna ondare gisa hartuz, zenbait adierazpen, gomendio, informazio eta gainerako ekimenen bitartez, aurrerapauso handiak eman ditu. Dena den, aipatu gomendioak gauzatu daitezten, gizarte zibilaren ardura beharrezkoa izango da.

- *Hizkuntzen Urtea (2008)*

UNESCOk 2008. Urtea Hizkuntzen Urtea izendatu zuen, eta zenbait ekimen sustatu eta babestu zituen ospakizun modura. Izendapen-ekitaldiko ondoko aipua hizkuntza-aniztasunaren aldeko ardura erakusten du:

“Growing recognition of the essential place held by languages in the social, economic and cultural life of our societies”; “linguistic diversity is inseparable from cultural diversity. It is through their language that people build, apprehend and express their emotions, their intentions, their values and their conceptions of the world”; “languages helps to shape individual and collective identity”; “it is estimated that, in few generations, more than half of the 7000 languages might have disappeared. We must act urgently”; “the cost of losing linguistic diversity are high and may jeopardize international cooperation to promote sustainable development...”; “the Director-General therefore called for the development of language policies that enable each linguistic community to use its first language, or mother tongue, as widely and as often as possible, including educational, administrative and legal contexts”; “only if multilingualism is fully accepted a san invaluable asset can all languages find their place in our globalized world”; ...

- *Eleaniztasuna Euskal Herrian*

Garai batean, elebitasuna arazotzat hartzen zen, eta gaur, berriz, eleaniztasuna gauzarik arruntena eta desiragarriena bezala agertzen zaigu. Ideia hori herritar guztientzat onuragarritzat hartzen bada, hezkuntzaren helburu bihurtzen da, eta hori da, azken batean, Europako Kontseiluak 2001. urtetik aurrera eragin nahi duen bilakaera. Euskal Herrian heziketa elebidunarekin badugu eskarmentua, eta eskola hirueledun edo eleaniztun bihurtu nahi izatea zilegi bezain desiragarria da, beti ere, bertako hizkuntza-ondarearen aurka —gurean euskararen aurka— egiten ez bada.

• *Euskal Herriko hizkuntzak*

UNESCO Etxeak eta IKUSPEGIk egindako ikerketan (2007) erakusten da, bertan ditugun euskara eta espainieraz gain, immigrazioarekin etorritako 100 hizkuntzatik gora identifikatu zirela hegoaldeko lau herrialdeetan (1.Taula):

**1.Taula: Etorkinen jatorria eta identifikatutako hizkuntza kopuruak, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan (2007) \***

	Lagunak zenbakitan	%	Estatuak zenbakitan	Hizkuntzak zenbakitan
Amerika	75.164	48,7	13	5 (9)
Europa	45.414	29,4	24	29
Afrika	27.892	18,1	20	52 (55)
Asia	5.838	3,8	9	14 (17)
Besteak	137	0,1		
	154.445	100,0	66	100

(Iturria: Uranga et al. 2008)

\* Kontinenteen araberako kopuruetan, errepikapenak saihesteko, ez dira garai bateko metropolien hizkuntzak jaso: frantsesa, ingelesa, gaztelania eta portugesa. Parentesi arteko zenbakietan hizkuntza horiek ere jasotzen dira.

1. Taula honez gain, beste taula batzuk ere eskaintzen dira komunikazioan, amerikar, asiar, europar eta afrikar jatorriko etorkinen hizkuntzak nola banatzen diren ikusteko: 100 hizkuntza 15.000 etorkin ingururen artean. Etorkinak EAEn populazioaren %6,1 direla kontuan hartuta, honako ideiak azpimarra daitezke:

1. Etorkin kopuru handiena Amerikatik etorri den arren (%48,7), ikerketan identifikatutako hizkuntza-kopurua ez da oso handia: 9 hizkuntza.
2. Kopuruaren aldetik, europarrek bigarren talde handiena osatzen dute (%29,4), eta ekarritako hizkuntzak 29 dira.
3. Afrikar etorkinak ez dute proportzionalki kopuru handiko taldea osatzen (%18,1). Aldiz, 52 hizkuntza ezberdin ekarri dituzte.
4. Asiar jatorrizko etorkinek talde txikiena osatzen dute (%3,8), baina 14 hizkuntza ezberdin ekarri dituzte.

Hau da, gure gizartean ia erabat ezkutuan dagoen kultura-aberastasuna erakutsi dasda, ondare izugarria; agian, agerian jartzeko ekimen gehiago abian jarri beharko lirateke.

• *Eleaniztasuna eskolan*

Hizkuntza asko jakitea geroz eta balio handiagoa duen altxorra bada, gure gizartean eskolak eleantzak bihurtzeko borondatea dagoela esan daiteke. Horixe da, hain zuzen, Europako Kontseiluaren gomendioa, eta

---

*UNESCO Etxeak eta IKUSPEGIk egindako ikerketan (2007) erakusten da, bertan ditugun euskara eta espainieraz gain, immigrazioarekin etorritako 100 hizkuntzatik gora identifikatu zirela hegoaldeko lau herrialdeetan.*

---

***Europako Portofolio egitasmoan hizkuntza jakin bat erabiltzeko gaitasuna, apala izan arren, baloratu behar dela esaten da.***

baita, jadanik, gure eskoletan eta hezkuntza-arduradunen ahotan entzuten den nahia ere. Baina elebidun edo eleaniztun izateaz zer ulertzen den jakitea ere beharrezkoa da. Europako Portofolio egitasmoan hizkuntza jakin bat erabiltzeko gaitasuna, apala izan arren, baloratu behar dela esaten da, norbanako bakoitzaren hizkuntza-biografia kontuan hartu behar delako, hau da, bizitzan zehar norbanakoak izan duen hizkuntza ezberdinekiko harremana eta hizkuntza horien erabiltzeko gaitasuna, edozein mailatakoa izanik ere, kontuan hartzekoa dela.

Eskola eleanitzak nahi direla esaterakoan, bi helburu-mota bereizi daitezke: 1) ikasleen jatorria kontuan hartuz, hau da, immigrazio-hizkuntzak ere kontuan hartuz, eta 2) ikasleen jatorria kontuan hartu gabe, gutxienez hiru hizkuntzen esperientzia neurtuz: bertan ditugun bi hizkuntzak, euskara eta espainiera, eta ingelesa.

Horrela, irakaskuntza eleanitzerako gutxienez bi bide daude. Lehen bidetik, ahaleginak egiten dira etorkinek dakarten hizkuntzak agerian jartzeko, eta horien errekonozimendua ikasleen artean pizteko. Modu horretan, norbanakoaren jatorrizko hizkuntza eta kultura baloratzen da. Ildo honetan hiztegitxoak prestatzen dira, pertsona- eta leku-izenak zabaltzen dira, esamolde baliagarriak ematen dira ezagutzera, eta abar. Bigarren bidetik abiatuz, hizkuntzen irakaskuntza bateratua proposatzen da, Dolz et al. (2009) proiektuari jarraituz. Honako eginbeharrak azpimarratzen dira:

1. Ukipenean dauden eta irakasten diren hizkuntzen egoera edo estatusa kontuan hartuz, haien eskolako presentzia nolakoa izan behar duen erabakitzea.
2. Irakaslearen prestakuntza, eleanitza izateaz gain, honelako lan batek eskatzen dituen ezagutza linguistiko eta didaktikoak kontuan hartzea.
3. Ikasleen gaitasunak aztertu eta ezagutzeko baliabide aproposak garatzea. Ikasleek zer dakiten eta zer ez jakitea ezinbestekoa da egitasmo eleanitzak arrakastatsua izan daitezen ziurtatzeko.
4. Baliabide didaktikoen alorrean: eskolak dituen bitartekoak, ezinbestean garatu behar dira modu berezian, hiru edo hizkuntza gehiagorekin eskola osoak funtzionatuko badu; eta jakina, hemen kokatzen dira baita ere teknologia berriak, ikus-entzunezkoak eta informatikoak.

Eleaniztasuna desiragarria bada ere, hori lortzeko oraindik gutxi egiten da gurean ere. Bestalde, eskolak helburu hori izan arren, gizarte osoak ez badu bere egiten helburu hori, eleaniztasuna arazo bihurtzeko arriskua bada.

## **AZKEN GOGOETAK**

Artikuluaren aurkeztu ditugun bi komunikazioen edukiak kontuan hartzen badira, zenbait ideia komun agerian geratzen dira:

- Alde batetik, gure mendebaldeko gizarte garatuen globalizazioak dakartzen gizarte mailako berrikuntzak daude. Ikuspegi soziologikotik begiraturik kontraesanean daudela dirudite, neurri batean behintzat. Izan ere, aldi berean agertzen dira honako ezaugarriak: 1) unibertsaltasuna eta berezitasuna azpimarratzea, 2) muga gabeko eta ondo mugatutako harremanak zabaltzea, 3) estatuen boterea gutxiagotzea eta handitzea, 4) maila guztien artekotasuna sakontzea eta mugatzea, 5) homogeneotasuna indartzeko eta berezitasuna bilatzeko prozesuak, 6) mota guztietako aniztasuna garatzea (hizkuntzekikoa barne) eta bereziki bakarra dena gordetzea, 7) migrazio masiboak eta norabide guztietakoak (ez soilik garatze bidean dauden herrietatik aberatsetara) handitzea eta bertakotasunak mantentzea, 8) egoera asimetrikotan gertatzen diren harremanetan estatusa erlatiboa aipatzea eta botere erlatiboa ezkatzea, 9) kontsumitzaile eta aurrezle izatea, 10) globalki pentsatzea eta lokaliki ekitea, eta alderantziz, lokaliki pentsatzea eta globalki ekitea, eta abar. Hala ere, gaur egun badira baita joera argiagoak eta ez hain kontrajarriak ere, esate baterako, itxuraz behintzat, pribatizazioa eta indibidualizazioa. Aurkeztutako bi komunikazioetan, hizkuntzekiko ere aplikagarriak diren horrelako ideia asko erabili dira, esplizituki edo inplizituki.

- Bestalde, globalizazioarekin batera datoz —ikuspegi psikosoziala gehienbat erabiliz— pertsona mailako berrikuntzak, gizarteko berrikuntzan txertatzen direnak, hain zuzen ere, horiek ere kontraesanoak diruditenak. Hemen aipa daitezke honako ezaugarriak: 1) gizartearen eta norbanakoaren indarrak batera azpimarratzea, 2) sozializazioan ohiturak jarraitzea eta berrikuntzak sortzea, 3) berdintasunak eta ezberdintasunak maneiatzen jakitea, 4) identitatea positiboki eta negatiboki erabiltzea, 5) hizkuntza-aniztasuna ondo eta ez hain ondo gestionatzea, 6) norbanako edo pertsona bakoitzaren normatibotasuna eta atipikotasuna batera bultzatzea, 7) norbanakoaren garapena bakarrik eta partekatuz egin beharra, 8) norbanakoaren ardura handitzea eta murriztea, 8) norbanakoen egozpen kausalak barnean eta kanpoan jartzea aukeratzea, 9) norbanakoaren efizientzian jarraitzea eta berritzea eskatzea, eta abar.

- Hori guztia aldi berean gertatzen da, batzuetan modu argian eta besteetan modu ilunean. Egoera “emergentean” gaudenez gaur egun, horrelakoak gertatzea ez da harrizkoa. Horregatik, hori guztia modu ezberdinetan azter daiteke, eta horrela egitea komeni da gainera, adibidez, 1) diskurtsoek esaten dutena eta praktikak adierazten dutena erkatuz, 2) azaleratzen dena eta ezkatzen dena erkatuz, 3) kontraesanak noraino egiazkoak edo itxurazkoak diren bereiziz, eta abar. Egin beharreko azterketak, bestalde, geroz eta diziplinartekoagoak izan beharko dute, badaezpadakoa erabiliz.

---

*Gure “ukipen-egoera tradizionala” azaltzeko erabili ohi diren faktore esplikatzaileak –euskara/espainiera-.*



---

***Horrek euskal populazio guztia ez inplikatzea ekarri baitu, edo kontrako inplikazioa eragitea ere, EAEn behintzat, euskararen normalizazioaren alde egin ordez, oztopatzeko.***

Esandakoa ulergarriagoa izan dadin, honako adibideak emango ditugu, euskararen egoerari aplikatuz:

1. Gure “ukipen-egoera tradizionala” azaltzeko erabili ohi diren faktore esplikatzaileak —euskara/espainiera— honakoak izan dira: identitateak, motibazioak, irudikapenak, jarrerak, eta horrelako prozesuak, horiekin portaerak ere lotuz. Horrela eginenez lortu ditugu hainbat azalpen euskararen gaitasun-mailari eta erabilerari dagokienean, besteak beste. Baina, badirudi horrela aztertzeak alde positiboak eta negatiboak dituela, euskararen aldekoak eta kontrakoak bihurtzen direnak, hain zuzen: 1) Aldeko arrazioen artean dago euskararen normalizazioan ekiteko eta bultzatzeko ikuspegi hori beharrezkoa izan dela jakitea. 2) Kontrakoen artean, aldiz, dikotomikoegiak izatea da. Izan ere, horrek euskal populazio guztia ez inplikatzea ekarri baitu, edo kontrako inplikazioa eragitea ere, EAEn behintzat, euskararen normalizazioaren alde egin ordez, oztopatzeko. Zenbait galdera sortzen dira halako errealtatea ulertzeko orduan: (a) Zergatik funtzionatu du identitate etnolinguistikoak modu honetan gure gunean? (b) Nori eta zeri dagokio erresponsabilitate nagusia? (c) Noren eskutan dago gehienbat estatu-nazio eredu horrenbesteko indarra izatea gurean? (d) Erraza al da, eta nola egin, estatu-nazio eredutik hizkuntza-ekologia eredura igartzeko? (e) Hizkuntza-ekologia ereduak zer eta noraino gainditzea dakar? Osatze bat? Euskarri berri bat? (Martinez de Lunaren galdera bera errepikatuz) (f) Noraino da beharrezko eta posible gaur egungo estatu-nazioaren hizkuntza bakarraren eredu ez erabiltzea? (g) Nolako bide berriak ireki behar dira, berrikuntzaren edo eraberritzearen aukera azpimarratuz, hobe dirudien hizkuntza-ekologia ereduaren sartzeko eta garatzeko?, Hizkuntza guztien artean, bereziki euskararen garapen jasangarria ziurtatzeko? Hona hemen eztabaidatzen jarraitzeko proposamena!
2. Immigrazio berriaren bitartez dugun “ukipen-egoera emergentea” azaltzea nekezagoa dela dirudi, berriaz gain emergentea ere baden neurrian. Nolanahi ere, badirudi egoera hori azaltzeko gehiago ari garela hizkuntza-ekologia eredu erabiltzen “ukipen tradizionala” ren kasuan baino. Zergatik ote da? Eredu hori erabiltzen ari gara ez bakarrik diskurtsoak aztertzerakoan, baita jadanik martxan jarri diren praktika batzuk aztertzerakoan eta justifikatzerakoan ere, hezkuntzan gehienbat. Aldiz, euskararen normalizazioarekin lotuz, orain arte ikusi duguna nahiko kontraesankor ageri zaigu, modu honetan: 1) bertan ditugun 100 hizkuntza berriak hezkuntzan sartzeko eta lantzea, ahal den neurrian, badirudi positiboki eragin behar duela euskararen aldeko-

tasuna ere indartzeko, 2) baina ez dago batere argi hori gertatzen ari den, zeren, agian, alderantzizko joera ari da hedatzen. Adibidez, EAEko haur eta gazte etorkinak nolako hizkuntza-ereduarekin lotzen dira? Noraino da D eredu gehien aukeratzen dutena? Eta hezkuntzatik kanpo ere, zer ari da gertatzen zenbait zerbitzutan? Jatetxe edo tabernatan, adibidez? Euskara erabiltzea ez al da gero eta nekezagoa? Nola egin etorkinek euskararen alde jartzeko eta ekiteko eta ez alderantziz? Berriro ere, oso premiazko galderak ditugu, sakon eta pertsona askoren arteko azterketa eskatzen dutenak. Horrela, hau guztia ere eztabaidatzen jarraitzeko proposamena egiten dugu!

3. Lan-munduari buruz ere (Kongresuko bigarren saioan landutako eremua) aipamen txiki bat egin nahi dut, *Hizkuntza Kudeaketa enpresetan, Globalizazio aroan* izeneko artikuluan Daniel Hermsilla irakasleak esaten dituenak erabiliz. Erakargarriak, benetan, esaten dituenak, lan-munduan lortu direnak ikusiz, eta lortu daitezkeenak proposatzen direnak kontuan hartuz. Horietatik batzuk artikulua honetan ere aipatu ditugu, adibidez, “globalizazioak” zer suposatzen duen, edo “berrikuntza” bultzatzea eta erabiltzea azpimarratu beharra. Baina beste batzuk ez ditugu aipatu, esate baterako, “euskararen balio erantsia”, “bezeroaren edo hartzailearen garrantzia”, eta abar. Pentsatzen dut artikulua horretan esaten direnak baliagarriak direla baita ere honetan ikusten direnak osatzeko; agian alderantziz ere bai. Beste mota honetako “modalitate-aniztasuna” eta “artekotasuna” ere bultzatu beharrean gaudela esango nuke, aurrera egingo badugu (azterketetan-eta areago). Izan ere, eremu bakoitzean erakusten dena inspiragarria izan daiteke beste eremuetan ere. Horrela izan dadila espero dugu!■

---

*Immigrazio berriaren bitartez dugun “ukipen-egoera emergentea” azaltzea nekezagoa dela dirudi, berriaz gain emergentea ere baden neurrian. Nolanahi ere, badirudi egoera hori azaltzeko gehiago ari garela hizkuntza-ekologia eredu erabiltzen “ukipen tradizionala”ren kasuan baino.*

## BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
- Bauman, Z. (2007). *Vida de consumo*. México, etc. Fondo de Cultura Económica.
- Baxok, E. et al. (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran - Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI*. Donostia-San Sebastián. Eusko Ikaskuntza-Sociedad Estudios Vascos.
- Coyos, B. (2009). Hizkuntza Ukipena. Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos: *Eusko Entziklopedia*. (online eta argitaratze bidean).
- Dolz, J., Gagnon, R. & Mosquera, S. (2009) La didáctica de las lenguas:

---

**Lan-munduari buruz ere.**

**Baina beste batzuk ez ditugu aipatu, esate baterako, "euskararen balio erantsia", "bezeroaren edo hartzaillearen garrantzia", eta abar.**

una disciplina en proceso de construcción. Didáctica. *Lengua y literatura*, 21, 117-141.

Elcorreodigital (J. M. | VITORIA) (27-10-2009)

<http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/20091027/pvasco-espana/camara-vasca-pide-valorar-20091027.html>

Erabili.com / Bestelakoak / 2009-05-18.

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1242630401](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1242630401)

Europako Kontseilua. 2002. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioziorako. Europako Erreferentzi Marko Bateratua Europako Kontseilua. 2002. Hizkuntzen Portofolio Europarra (HPE)*

Hernandez, J. M. (2000). Gaztetxoek hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizi-penak. In Martínez de Luna, I. y Berrio-Otxoa, K. (Zuz.). *Etokizuna Aurreikusten 99: Gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz. Martínez de Luna (Argit.) (9-96).

Martí F., Ortega, P. Idiazabal I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. & Amorrortu, E. (Ed.) (2005). *Words and Worlds. World Language Review*: Clevedon U.K.: Multilingual Matters, ISBN: 1-85359-827-5.

— Euskaraz: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial. 2005, ISBN: 84-8373-817-1.

— Frantsesez: *Un monde de paroles, paroles du monde. Étude sur les langues du monde*, Paris : L'Harmattan, 2006. ISBN : 2-296-01114-4

— Gaztelaniaz: *Palabras y mundos. Informe sobre las lenguas del mundo*, Barcelona: Icaria, 2006 ISBN: 84-7426-889-3

— Errusieraz: (2006) Kalmik State University ISBN 5-230-20276-9

Moreno Cabrera, J.C. (2008). *El nacionalismo lingüístico: una ideología destructiva*. Barcelona: Península.

Noticias de Gipuzkoa. Miércoles, 02 de septiembre de 2009. <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2009/09/02/sociedad/gipuzkoa/d02gip10.1577058.php>

Phillipson, R. (12.10.2009) *Lenguas Internacionales y Derechos Humanos Internacionales. Asociación Chilena de Esperanto*. [http://www.esperanto.cl/es/lenguas\\_internacionales](http://www.esperanto.cl/es/lenguas_internacionales).

UNESCO (2009) *UNESCO Interactive Atlas of the World's Languages in Danger*. UNESCO. 2009. <http://www.unesco.org/culture/>. Retrieved 11 April 2009

Uranga, B, Aierdi, X., Idiazabal, I., Barreña, A., Amorrortu, E. & Ortega, A. (2008) *Hizkuntzak eta immigrazioa. Lenguas e inmigración*, Bilbao: IKUS-PEGI, Amarauna UNESCO Etxea, Cátedra UNESCO Patrimonio Lingüístico. ISBN: 978-84-9860-086-5.

Uranga, B, & Maraña, M. (ed.) (2008) *El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad*. Madrid: Catarata.

Wurm, S. A. (ed.) (2001): *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*. Unesco Publishing.